

## MONDRAGON UNIBERTSITATEAK laborategi bat jarriko du martxan Zaragozan, Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Gradua emateko.

2016/03/16

MONDRAGON Team Academy nazioarteko ekintzailera-sareak (MONDRAGON UNIBERTSITATEAK bultzatuta) beste laborategi bat jarriko du martxan Zaragozan, datorren irailean: Zaragoza Lab. Bertan, Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Gradua (LEINN) emango du. Gradu horrek ekintzaile bihurtzeko eta gaitasun eta trebetasun ez-formalak eskuratzeko aukera eskaintzen die gazteei. Espainian dagoen horrelako titulu ofizial bakarra da, eta MONDRAGON UNIBERTSITATEArena da. Gaur egun, gradu hori tokian tokiko laborategien bidez ematen da Oñatin, Irunen, Bilbon, Madrilen, Amsterdamen, Mexikon, Shangain, Punen (India), Bartzelonan eta Valentzian.

Zaragoza Lab hurrengo ikasturtean jarriko da abian, Nazioarteko Negozio Eskolak (CESTEK) eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Aragoiko hiriburuan laborategi bat zabaltzeko sinaturiko akordioari esker.

Graduak 4 zutabe hauetan oinarritzen du ikaskuntza: oinarrizko gaiak ikastea, irakurgaiak, ikaskuntza-bidaiak eta proiektuen garapena (labetan egiten dena). LEINN metodologiaren oinarria gaitasunak eta trebetasunak garatzea da. Horretarako, funtsezko elementu hauek ditu:

**Finlandiako hezkuntza-eredua.** Graduak Finlandiako metodoa du oinarri eta, horri esker, hainbat tresna garatu ditu: autonomia arduratsua eta sormena, elkarrizketa, talde ekintzaileak, komunitate-sentimendua...

**Nazioarteko bidaiak.** Erronkak eta proiektuak garatzeko prestakuntza-bidaiak dira. Lehen ikasturtean, ikasleek bi hilabetez bidaiatuko dute Finlandiara; bigarrenean, Estatu Batuetara (Silicon Valey); eta hirugarrenean, Txinara eta Indiara.

**Eginez ikastea.** Ikaskuntza-tresna garrantzitsuenetako bat taldea bera da. Han, ikasleek graduako gaitasunak eta trebetasunak lantzen dituzte, praktikaren eta autoikaskuntzaren bidez. Bere rola aldatuz, irakaslea taldearen coach bihurtzen da, laguntzeko, galderak egiteko, aholkuak emateko, esperientzia partekatzeko...

**Benetako enpresak.** Taldeak enpresa bat sortu behar du talde-lanean. Garapen pertsonalaren eta ikaskuntzaren gakoa mundu errealekin duten etengabeko elkarrekin da. Benetako enpresa bat sortzen dute, benetako bezero eta proiektuekin.

### Langabeziarik gabeko gradua

Mondragon Team Academy (MTA) nazioarteko sareak 9 laborategi ditu gaur egun: Irunen, Oñatin, Bilbon, Madrilan, Bartzelonan, Valentzian, Amsterdamen, Querétaron (Mexiko), Shanghain eta Punen (India). Horietan, hainbat programa garatzen dira, eta berrikuntza eta ekintzailera dinamizatzen. MUREn Enpresagintza Fakultateko Mondragon Team Academy unitatearen bidez ematen da gradua. Mondragon Team Academy ekintzaile batzuek elkarlanean eratutako nazioarteko sarea da. 2008an sortu zen, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN Enpresagintza Fakultatearen barruan, Finlandiako Tiimi Akademia ekintzailera-unitatearekin lankidetzan estuan. LEINN graduako lehen ikasle-promozioa graduatu zenetik urtebetara, datuek agerian jarri dute ez dagoela enplegu bila dabilen egresaturik, bat ere ez dago langabezia.

